



LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN KOMUNIKATUA

Bilbo, 2014ko azaroaren 4a

Euskal Autonomia Erkidegoko hedabide batzuek Lehiaren Euskal Agintaritzak irekitako zehapen-espeditentari buruzko informazioak argitaratu dituzte 2014ko azaroaren 3an eta 4an. Espediente hori “Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola-Jantoki Publikoen Zerbitzu”-ko sektoreko zenbait enpresaren aurka ireki da, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak ezarritakoaren aurkako jokabideak direlakoan.

Isilpekotzat jo ez diren espeditenteko datu eta dokumentuak eskuratzeko eskubidea esleitzen die aldeei (salatzailea eta salatuak) zehapen-prozedurak, euren eskubideen defentsan ari ahal izatearren. Espeditenteko alde guztiek eskuragarri izan dute espeditentea.

Aipatutako Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 43. artikulua eta Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 29. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz, zehapen-espeditentek izapidetzean parte hartu duten pertsona guztiek, edo beren lanbideagatik, karguagatik edo alderdi gisa parte hartzeagatik horien berri dutenek, isilpean gorde behar dituzte horiei buruzkoak, baita beren kargu edo eginkizunak utzitakoan ere. Datuak isilpean gorde beharra ez betetzeak erantzukizun penal, zibil edo administratiboak ekar ditzake.



Espedientean dagoen dokumentazio guztia —aurretiazko eginbideak, espedientearen irekitzeko ebazpena eta gainerako jardura administratiboak— isilpean gorde beharrekoa da eta LEA honek zintzoki gorde du dena isilpean. Arrazoi beragatik erakunde honek ezin du iruzkin edo iritzirik eman espedienteko elementuei buruz, ezta hedabideetan agertzen diren informazioei buruz ere.

Halaber, espedientean benetan dagoen informazioak ez digu aurreikusarazten nolakoa izango den espedientearen amaiera.

Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 43. artikulua ezarritakoa aipatutako pertsonen hausteak ekartzen dituen ondorioak direla eta, Lehiaren Euskal Agintaritzak aipatutako gertaerak EAEko Auzitegi Nagusiko Fiskaltzari jakinaraztea erabaki du gaur, horiek aztertzean erantzukizuren bat ikusten bada ere.